



**2020/06/16KO UDALBATZAREN EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

**Eguna:** 2020/06/16  
**Hasiera ordua:** 14:15  
**Amaiera ordua:** 14:30

**Bertaratuak:**

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Maria Cristina Etxenausia Irure

Iban Herrarte Arana

Gorka Astondoa Altuna

Oihana Ameskoa Perez

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa

**Ez bertaratuak:**

Ana Maria Martiarena Arregi

Pedro Elosegui González de Gamarra

Santiago Balantzategi Beitia

**Idazkaria:**

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzaila, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



## AURKIBIDEA

|   |    |
|---|----|
| 1. 2019 EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.....   | 4  |
| 2. ONARTZEA EZOHICO DIRULAGUNTZA DEIALDIA EGITEA COVID-19AREN ERAGINEI AURRE EGITEKO .....                  | 5  |
| 3. ONARTZEA, HERRIKO JAI EGUN OFIZIALA IZENDATZEA 2021 URTERAKO.....  | 8  |
| 4. UDAL GIZARTE ZERBITZUAK EMATEN JARRAITZEKO HITZARMENAREN LUZAPENA EGITEA ONARTZEA.....                   | 9  |
| 5. ONARTZEA TALDE SOZIOKULTURALAK DIRUZ LAGUNTZEKO 2020 EKITALDIARI DAGOKION DEIALDIAREN OINARRIAK.....     | 10 |
| 6. ONARTZEA AUZOETAKO JAIK DIRUZ LAGUNTZEKO 2020 EKITALDIARI DAGOKION DEIALDIAREN OINARRIAK.....            | 13 |
| 7. EUSKO LEGEBILTZARRA BERRITZEKO EGINGO DEN HAUTESKUNDE PROZESUKO HAUTESMAHAIKO KIDEEN ZOZKETA EGITEA..... | 3  |



Alkate-lehendakariak udalbatzari hasiera ematen dio eta adierazten du, funtzionaltasun kontuengatik komenigarria dela azkeneko puntua, hautesmahaiko kideen zozketa, lehenbailehen egitea. Bertaratutako guztien aldeko irizpenarekin, aho batez, horrela egitea onartzen da.

## 7. EUSKO LEGEBILTZARRA BERRITZEKO EGINGO DEN HAUTESKUNDE PROZESUKO HAUTESMAHAIKO KIDEEEN ZOZKETA EGITEA

Datorren uztailaren 12ko hauteskundeak direla-eta, araudiak udalei ezartzen dizkien betebeharrak kontuan hartuz, Udalbatzak ebatzi du:

**Lehena.-** Hauteskunde mahaiko kideen zozketan ohiko 2 ordezko egongo dira, postu bakoitzeko.  
**Bigarrena.-** Zozketa egitea eta ondoren zehazten den emaitza onartzea:

|   |  |  |  |  |  |
|---|--|--|--|--|--|
| <b>BARRUTIA / DISTRITO: 1</b><br><b>ATALA / SECCIÓN: 1</b><br><b>MAHAIA / MESA: A</b> |  |  |  |  |  |
|---|--|--|--|--|--|

| Hurrenkera | Kargua                              | Izena        | 1go Abizena   | 2go Abizena  | NAN       |
|------------|-------------------------------------|--------------|---------------|--------------|-----------|
| Orden      | Cargo                               | Nombre       | 1er Apellido  | 2º Apellido  | DNI       |
| 1          | Lehendakaria<br>Presidente          | JUAN IGNACIO | ALTUNA        | GALLASTEGUI  | 72565956J |
| 2          | 1go Ordezkoa<br>1º Suplente         | MAIALEN      | BALLINA       | MONDRAGON    | 72858862Z |
| 3          | 2go Ordezkoa<br>2º Suplente         | IRENE        | BENGOA        | ALTUNA       | 72714108E |
| 4          | Lehengoko bokala<br>Primer vocal    | MIKEL        | BERASALUCE    | ARRIZABALAGA | 72720442P |
| 5          | 1go Ordezkoa<br>1º Suplente         | JAIME        | CARMONA       | MENDIARACH   | 72565816B |
| 6          | 2go Ordezkoa<br>2º Suplente         | MARKEL       | ARRIOLABENGOA | MARTIARENA   | 72720434T |
| 7          | Bigarrenoko bokala<br>Segundo vocal | BEATRIZ      | ARREGUI       | TROJAOLA     | 72568651V |
| 8          | 1go Ordezkoa<br>1º Suplente         | IÑAKI        | ELEJALDE      | ELGUEA       | 16271373T |
| 9          | 2go Ordezkoa<br>2º Suplente         | ENDIKA       | ASPE          | URRUTIA      | 53983263D |

|   |  |  |  |  |  |
|---|--|--|--|--|--|
| <b>BARRUTIA / DISTRITO: 1</b><br><b>ATALA / SECCIÓN: 1</b><br><b>MAHAIA / MESA: B</b> |  |  |  |  |  |
|---|--|--|--|--|--|

| Hurrenkera | Kargua                              | Izena    | 1go Abizena  | 2go Abizena  | NAN       |
|------------|-------------------------------------|----------|--------------|--------------|-----------|
| Orden      | Cargo                               | Nombre   | 1er Apellido | 2º Apellido  | DNI       |
| 1          | Lehendakaria<br>Presidente          | MIKEL    | SERRATO      | GIL          | 72849883M |
| 2          | 1go Ordezkoa<br>1º Suplente         | AITZIBER | JUARISTI     | GARAY        | 44670226V |
| 3          | 2go Ordezkoa<br>2º Suplente         | ROMAN    | MARTINEZ     | URIBARREN    | 72573130B |
| 4          | Lehengoko bokala<br>Primer vocal    | ITXASO   | GUTIERREZ    | LASAGA       | 72724549K |
| 5          | 1go Ordezkoa<br>1º Suplente         | AGUSTIN  | OYANGUREN    | EGUIZABAL    | 15371151K |
| 6          | 2go Ordezkoa<br>2º Suplente         | JAIME    | IBABE        | ZUBIZARRETA  | 72716635L |
| 7          | Bigarrenoko bokala<br>Segundo vocal | MANEX    | ZALAKAIN     | RUIZ DE AZUA | 72856424Z |
| 8          | 1go Ordezkoa<br>1º Suplente         | IKER     | OLAZIREGI    | KORTABARRIA  | 72461324P |
| 9          | 2go Ordezkoa<br>2º Suplente         | MIRYAN   | MONDRAGON    | AZPIAZU      | 18600036M |



**Hirugarrena.-** Jakinaraztea zozketaren emaitza kargu nagusien interesdunei, hau da, lehendakaria, lehen bokalari, bigarrenari eta bakoitzaren lehenengo eta bigarren ordezkoei. Ezintasun egoeraren bat sortuz gero, ateratako ordezkoen hurrenkera jarraituko da mahaiak osatu arte.

### 1. 2019 EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA

Alkate-lehendakariak hitza hartu eta aurkezten du, 2019ko ekitaldiari dagokion likidazioa. Gogorazi behar da likidazioa egin eta onartzea alkateari dagokiola indarrean dagoen araudiarekin bat.

Laburbilduz, 2019ko ekitaldian, ondorengo emaitzak lortu dira (kopuruak eurotan):

| <b>AURREKONTU EMAITZA 2019 EKITALDIA</b>                                    | <b>Euroak</b>     |
|---|-------------------|
| (+) Likidatutako eskubide garbiak   | 2.113.905,65      |
| (-) Onartutako obligazio garbiak  | 1.659.021,44      |
| <b>(=) Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza gordina</b>                 | <b>454.884,21</b> |
| (+) Doiketak, diruzaintzako gerakinen bidez finantzatutako obligazioengatik | 85.187,02         |
| (-) Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik          | 91.930,17         |
| Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza        | -125,79           |
| <b>AURREKONTU EMAITZA 2019 EKITALDIA</b>                                    | <b>448.015,27</b> |

| <b>DIRUZAINZAKO SOBERAKINA 2019 EKITALDIA</b>                   | <b>Euroak</b>       |
|---|---------------------|
| <b>(+) Diruzaintzako izakin likidoak</b>                        | <b>1.653.680,81</b> |
| (+) 2019 ekitaldiko aurrekontuetako zordunak                    | 305.360,12          |
| (+) Itxitako aurrekontuetako zordunak                           | 122.243,19          |
| (+) Aurrekontuz kanpoko zordunak                                | 10.757,25           |
| <b>Guztira Kobratu Gabeko Eskubideak</b>                        | <b>438.360,56</b>   |
| (-) 2019 ekitaldiko aurrekontuetako hartzekodunak               | 239.479,04          |
| (-) Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak                      | 28.431,93           |
| (-) Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak                           | 216.450,76          |
| <b>Guztira Ordaintzeko dauden zenbatekoak</b>                   | <b>484.361,73</b>   |
| <b>(=) DIRUZAINZAKO GERAKIN GORDINA</b>                         | <b>1.607.679,64</b> |
| (-) Eskubide kobragaitzak                                       | 99.302,15           |
| <b>(=) DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA</b>                         | <b>1.508.377,49</b> |
| (-)Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina | 119.478,00          |
| <b>(=) GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA</b>           | <b>1.388.899,49</b> |

| <b>ZOR BIZIA (2019/12/31n)</b>             | <b>Euroak</b> |
|--|---------------|
| Aramaioko Udalaren zor bizia (2019/12/31n) | 0,00          |

| <b>DIRUZAINZTA IZAKINAK (2019/12/31n)</b> | <b>Euroak</b>       |
|---|---------------------|
| Diruzaintza izakinak (2019/12/31n):       | <b>1.653.680,81</b> |
| - Udal kutxa                              | 60,76               |



|                                     |            |
|-------------------------------------|------------|
| - Kutxabank zergabilketa kontua     | 199.914,84 |
| - Kutxabank kontu operatiboa        | 612.487,19 |
| - Laboral Kutxa kontu operatiboa    | 808.901,41 |
| - Laboral Kutxa zergabilketa kontua | 32.316,61  |

Baita ere, adierazi beharra dago, araudiak ezarritako defizitaren eta zor publikoaren helburuak betetzen direla eta, baita ere, gastu araua.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak egindako diktamena. Diktamenak horrela dio, hitzez hitz:

“**Lehena.**- Adieraztea, 2019ko ekitaldiaren likidazioaren emaitzen jakinaren gainean gelditzen dela.

**Bigarrena.**- Onartu den likidazioaren espedientearen kopia bat Arabako Foru Aldundira eta Arabako Ogasun Delegaziora bidaltzea.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin Hirigintza Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

## **2. ONARTZEA EZOHICO DIRULAGUNTZA DEIALDIA EGITEA COVID-19AREN ERAGINEI AURRE EGITEKO.**

Alkate-Lehendakariak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak adostutako ezohiko dirulaguntza deialdi proposamena, COVID-19aren eraginei aurre egiteko. Dirulaguntza honen xede nagusia da Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko alarma egoerak ixtera behartu dituen jarduera eta ostalaritzako establezimenduei laguntzea.

Dirulaguntza honen bidez, aplikatu beharreko salbuespenezko prebentzio neurriak sortarazitako egoera zaileri aurre egitea eta erantzun bat ematea da helburua, gainontzeko Administrazioek eremu honetan epe labur nahiz ertainean har ditzaketan bestelako neurrien kalterik gabe. Horretarako, aldizkakotasun izaerarik gabeko dirulaguntzak emango dira. Jarritako laguntza horiek larrialdi egoera bakoitzak sortutako gastuari zati batean aurre egitera bideratuko dira:

**“UDAL DIRULAGUNTZAK EMATEKO EZOHICO DEIALDIA, COVID-19AK ERAGINDAKO KALTEAK ARINTZEKO, ALARMA EGOERAK IXTERA BEHARTU DITUEN JARDUERA ETA OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUEI.**

### *1. Aurrekariak eta testuingurua.*

*Munduko Osasun Erakundeak 2020ko martxoaren 11n nazioarteko pandemia bihurtu zuen Covid-19k eragindako osasun publikoko larrialdi-egoera.*

*Martxoaren 12an, Aramaioko Udalak hainbat zerbitzu bertan behera uzteko erabakia hartu zuen, esaterako, liburutegia, udal kiroldegi zerbitzua, udal batzordeak, aurreikusitako hainbat ekitaldi, eta abar. Halaber, udalak kudeatzen ez dituen zerbitzu batzuk ere eten egin ziren egun horretan bertan.*

*Testuinguru horretan, hainbat dekretu, agindu eta gomendio argitaratu ziren:*

— *Martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua, Lehendakariarena, zeinaren bidez Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak bereganatzen baititu, Covid-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean.*

— *Martxoaren 13ko Agindua, Segurtasun sailburuarena, zeinaren bidez formalki aktibatzen baita Euskadiko Babes Zibileko Plana, Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi izeneko plana, Covid-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu duen egoeraren aurrean.*

— *Martxoaren 13ko Agindua, Osasun sailburuarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira Euskal Autonomia erkidegoan, Covid-19 koronabirusaren egoera eta bilakaera dela eta.*

— *Martxoaren 14ko Agindua, Osasun sailburuarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira Euskal Autonomia erkidegoan, Covid-19 koronabirusaren egoera eta bilakaera dela eta.*

### *2. Alarma egoeraren deklarazioa.*



2020ko martxoaren 14an, 463/2020 Errege Dekretua argitaratu zen, non, «Coronavirus» (Covid-19 aurrerantzean) izeneko birusak eragindako osasun krisiaren Kudeaketarako alarma egoera deklaratu zen 15 eguneko iraupenarekin.

Alarma egoera hori gaur egun ere indarrean dago. Dekretuak hainbat neurri hartzen ditu, kontaktuen jarraipena egin eta arriskuaren araberako gizarte urruntze neurriak sustatzeko.

Errege Dekretuaren Azken Xedapenetatik lehenak dio alarma deklarazio horren aurretik Erkidego nahiz tokiko gobernuek koronabirus Covid-19aren baitan hartutako neurriek indarrean jarraitzen dutela. Betiere, errege Dekretu honek xedaturikoarekin bat badatoz.

3. Deklarazioaren ondorioak.

Hartutako neurri horiek eragin zuzena izan dute herritarren eguneroko bizitzan, bai beraien mugitzeko askatasunean zein beste eskubide batzuen egikaritzan.

4. Egoera arintzeko laguntza proposamena.

Udaleko baliabideak inoiz bizi ez den egoera honen aurrean herritarren beharrei erantzun egoki bat emateko erabilitea dagokigu.

Ondorioz, Covid-19ak eragindako egoera arintzeko helburuarekin, ez-ohiko dirulaguntza deialdia onartzea proposatzen da alarma egoerak ixtera behartu dituen jardueri laguntzeko.

Horretarako, aldizkakotasun izaerarik gabeko dirulaguntzak emango dira.

Euskadiko Tokiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 7ko 2/2016ko Legearen baitan, Udal Batzarrak 2020ko ekainaren 16an,

#### ERABAKI DU

Lehena.- Covid-19aren ondoriozko alarma egoerak ixtera behartu dituen jardueri udal dirulaguntzak emateko ezohiko deialdia egitea.

Deialdi horren ezaugarriak akordio honen eranskin gisa jaso dira.

Deialdia eta laguntza eskatzeko beharrezkoak diren gainontzeko dokumentuak Udalaren web orrian ([www.aramaio.eus](http://www.aramaio.eus)) daude erakusgai.

Bigarrena.- Deialdi horri aurre egiteko 2020. Ekitaldiko udal aurrekontuan 15.000,00.- euroko gastua baimentzea, Aramaioko Udaleko aurrekontuaren baitan: 01.231.471000 -- Jarduera eta ostalaritzako establezimenduei dirulaguntzak.

Laguntzaren ezaugarri nagusiak:

Ile-apaindegien, ostalaritzako establezimenduen, nahiz bestelako jarduera ekonomikoen (akademiak, mekanikoak, etab...) derrigorrezko itxierak sortutako kalte ekonomikoen eragina gutxitzeko laguntzak.

Laguntza 400,00.-€koa izango da beti ere hilabete bateko epea erreferentziazat hartuz. Halaber, 100,00.-€ko gehigarria izango dute % 100 jardunaldian daukaten langile bakoitzeko. Lanaldi partzialean aurkitzen diren kasuetan, gehigarria era proportzionalean emango da.

Itxialdia partziala izan bada (hau da, negozioaren zati bat irekita eta beste bat itxita), laguntza 200,00.-€koa izango da. Halaber, 100,00.-€ko gehigarria izango dute % 100 jardunaldian daukaten langile bakoitzeko. Lanaldi partzialean aurkitzen diren kasuetan, gehigarria era proportzionalean emango da.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Alta historikoa egiaztatu beharko da.

Helbide fiskala Aramaion izatea ezinbesteko baldintza izango da.

Hirugarrena.- Erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean. Epeak, beti ere, deialdia argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen.

#### ERANSKINA

Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko, alarma egoerak ixtera behartu dituen jarduera eta ostalaritzako establezimenduei udal dirulaguntzak emateko ezohiko deialdia.

1. Xedea eta lagundu daitekeen epealdia.



Dirulaguntza honen xede nagusia da Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko alarma egoerak ixtera behartu dituen jarduera eta ostalaritzako establezimenduei laguntzea.

Dirulaguntza honen bidez, aplikatu beharreko salbuespenezko prebentzio neurriak sortarazitako egoera zailei aurre egitea eta erantzun bat ematea da helburua, gainontzeko Administrazioek eremu honetan epe labur nahiz ertainean har ditzaketen bestelako neurrien kalterik gabe.

Horretarako, aldizkakotasun izaerarik gabeko dirulaguntzak emango dira.

Jarritako laguntza horiek larrialdi egoera bakoitzak sortutako gastuari zati batean aurre egitera bideratuko dira.

## 2. Laguntza ekonomikoen hasierako epea.

Diruz lagungarriak izango diren honako kontzeptuak Estatuko alarma egoeraren deklarazioaren ondoren hasiko dira.

Ile-apaindegien, ostalaritzako establezimenduen eta bestelako jarduera ekonomikoen itxiera, beti ere, alarma egoeraren ondorioz jarduera eteteak sortarazitako kalte ekonomikoen eragina gutxitzeko laguntzak (15.000 €).

## 3. Diru-laguntzen indarraldia.

Dirulaguntza honek alarma egoera amaitu arteko edota alarma egoera amaitu aurretik ezarri den diru laguntza kopurua agortu arteko iraupena izango du. Beti ere, alarma egoeraren baitan kasu hauei eragindako arintzerik ematen ez bada.

## 4. Diru-laguntzen ordainketa.

Dirulaguntzak xede duen helburua egoera egiaztatu bezain pronto ordainduko da.

Dirulaguntza honetara bideratutako aurrekontua (15.000 €), ez bada nahikoa dauden eskaera guztiei erantzuteko, modu proportzionalan banatuko da.

## 5. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaera egiteko epea.

Dirulaguntza eskaerarekin batera atxikitu behar den dokumentazioa ondoren adierazitako izango da:

- Dirulaguntza eskaera udalaren erregistro orokorrean eta bere web orrian argitaratu den eredia erabiliz egin beharko da.
- Eskaera orriarekin batera, aurkeztu beharko dira:
- Jarduera burutzen duela egiaztatzen duen JEZaren Alta historikoa. (Udalak egiaztatuko du).
- Langileak izanez gero, berauen lan kontratuaren kopia.
- Helbide fiskala Aramaion izatea (Udalak egiaztatuko du).

## 6. Eskariak aurkezteko epea eta mugak.

Eskabideak aurkeztu epea 20 egun naturalekoa izango da, deialdi hau ARABAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Aramaioko Udaleko webgunean argitaratutako egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Eskatzaileak, atal honetan aurreikusten diren diru-laguntzetatik soilik bat jasotzeko eskubidea izango du, hau da, ezin izango du kontzeptu ezberdinetatik izanda ere, dirulaguntza bat baino gehiago jaso, soilik modalitate bateko dirulaguntza eskatzea ahalbidetzen da.

## 7. Gauzatzea eta proposamena.

Udalaren Ekonomia Sailak dirulaguntzaren kudeaketarako lanak egingo ditu, eta ebazpen proposamena prestatuko du.

Ondoren, Alkateak Ekonomia Sailaren proposamena ikusita, dirulaguntza eskaerari buruzko erabakia hartuko du.

Eskatzaileak, Alkatearen erabakiaren kontra egoki irizitako errekursoak aurkeztu ahal izango ditu legez erabakitako epe eta moduetan.

## 8. Interesdunaren betebeharrak eta obligazioak.

Diru laguntza hau eskatzen duten interesatu orok, hura eskuratzeko beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko du. Hala ere, udalak dirulaguntza emateko orduan zalantzarik baldin badu interesatuari baldintzak betetzen dituen ala ez, dokumentazio edo informazio gehigarria eskatu ahal izango dio eta interesatuak eskaera hori bete egin beharko du.

Dirulaguntza jasotzen duten ile-apaindegi, ostalaritzako establezimendu eta bestelako jardueren ondorengo konpromisoa hartu beharko dute:



Alarma egoera ezartzen duen dekretuaren indarraldia amaitzean, hau da, jarduerak irekitzeko baldintzak ematen direnean, laguntza jaso duten komertzio zein establezimenduek, gutxienez 4 hilabetez zerbitzua irekitzeko konpromisoa hartu beharko dute.

#### 9. Udalaren eskubidea.

Udalari dagokio dirulaguntza honen oinarriak interpretatzeko eskubidea, dirulaguntzaren betearazpenak sor ditzakeen zalantzak argitzea, ematen diren kasuistika eta kalteen zamak interpretatzea eta dirulaguntzak baimendu edo ezeztatzea. Beti ere, Dirulaguntzen Araudi Orokorra arautzen duen azaroaren 17ko 38/2003 Legeak ezarritako eskakizun eta ondorioetara loturik.

#### 10. Dirulaguntzen itzultzea.

Eskatutako baldintzak beteko ez balira, edo behar bezala arrazoitutako beste edozein zioengatik, Udalak dirulaguntza emakida deusezta dezake eta emandako dirulaguntza bueltatzea eskatu dakiokoe interesatuari.

#### 11. Ebazpena: alkatetza.

Prozeduraren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesatuei edota erakunde interesatuei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 41.1 artikulua arabera; betiere emandako dirulaguntzak Udalaren webgunean argitaratzeko aukera baztertu gabe.

Laguntza lerro hau bateragarria izango da beste Administrazioak martxan jarri ditzazketen laguntzekin baino ezingo da Covid-19aren ondorioz sortutako galera ekonomikoa baino gehiago jaso. Halakorik gertatuz gero, esandako 38/2003 Legeak aurreikusten duen Itzulera prozedura martxan jarriko da.

Emandako dirulaguntzaren ordainketa bakoitza banku transferentzia bidez egingo da, erakunde edo pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean.

#### 12. Araudi ezargaria.

Bere oinarri arautzaileetan ezarrikoaz gain, laguntza hauek Dirulaguntzen Araudi Orokorra arautzen duen azaroaren 17ko 38/2003 Legeak arautuko dituzte.”

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“**Lehena.-** Onartzea, Udal Dirulaguntzak emateko ezohiko deialdia, COVID-19ak eragindako kalteak arintzeko, alarma egoerak ixtera behartu dituen jarduera eta ostalaritzako establezimenduei.

**Bigarrena.-** Esandako dirulaguntzen deialdian kaltetuen artean banatzeko dirulaguntzen gastua onartzea, guztira, 15.000,00 eurokoa.

**Hirugarrena.-** Dagokionean, deialdia zabaltzea.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak adostutako oinarriak eta proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

### 3. HERRIKO JAI EGUN OFIZIALA IZENDATZEA 2021 URTERAKO.

Alkate-Lehendakariak hitza hartu eta, jakinarazten du, maiatzaren 8an argitaratu zela 56/2020 Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2021 urteko jaiegunen egutegia onartzeko dena. Horrek, indarrean dagoen araudiarekin bat, xedatu zuen, bi mila eta hogeita bat urtean, egun balio gabetzat hartuko direnak lan ondorioetarako Euskal Autonomia Erkidegoan, hots, ordaindu egingo direnak eta ez direnak berreskuratu beharko. Halaber, esandako dekretuak udalei eskatzen die, tokian tokiko jai egun ofiziala ere izendatu eta Lan eta Justizia Saileko lurralde-ordezkaritzari jakinarazi diezaiotela.

Alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“Lehena.- Uztailaren 5a izendatzea Aramaioko jai egun ofiziala 2021 urterako.

Bigarrena.- Dagokion jakinarazpena egitea Lan eta Justizia Saileko lurralde-ordezkaritzari.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.





#### **4. UDAL GIZARTE ZERBITZUAK EMATEN JARRAITZEKO HITZARMENAREN LUZAPENA EGITEA ONARTZEA.**

Alkateak adierazten du, 2020ko apirilaren 16ko Arabako Lurralde Batzordeak baiezkoa eman diola Arabako Foru Aldundiaren proposamenari, hasierako 2016ko erabakiaren luzapena formalizatzeari buruzkoa. Haren helburua zen 20.000 biztanle baino gutxiagoko Arabako udaletan gizarte-zerbitzuak 2016ko abenduaren 16a baino lehen eman ziren era berberean ematen jarraitzea, denboraldi iragankorrez.

222/2020 Akordioaren arabera, maiatzaren 26koa, Arabako Foru Aldundiak onartu du 2020ko abenduaren 31 arte luzatzea aurreko 904/2016 akordioa, abenduaren 26koa. Eraginkortasuna baldintzatua dago. Hartara, horren eskumena duen udal-organoak erabakia hartu eta horren ziurtagiria Arabako Foru Aldundira bidali beharko da 2020ko ekainaren 26a baino lehen.

Alkateak aurkezten du luzapenerako hitzarmenaren testua eta, halaber, Ongizate Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

*"Gizarte Zerbitzuak arautzen dituen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak 42. artikuluan xedatzen duenaren arabera, Udalaren eskumena da honako funtzio hauek betetzea:*

*(...)*

*3) 29. artikulua aurreikusten dituen oinarrizko gizarte-zerbitzuak sortzea, antolatzea eta kudeatzea.*

*4) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Zerbitzuen eta Prestazioen Katalogoan agertzen diren lehen arretako gizarte-zerbitzuak ematea, hain zuzen ere, 22. artikuluko 1. paragrafoak zehazten dituenak, tele-laguntzako zerbitzua izan ezik.*

*Era berean, Gizarte Zerbitzuen Legeak ezartzen du zein den gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa. Hori, gainera, 2016ko abenduaren 26an hobetu zen.*

*Araudiak ezarritako eskakizunen ondorioz, Aramaioko Udalbatzak hauxe adierazi nahi du:*

*a) Gizarte Zerbitzuen Legeak eta Lege horrek biltzen dituen beste arau batzuek bereizi egiten dituzte udal eskumena eta zerbitzuaren benetako prestazioa.*

*b) Hauxe da Gizarte Zerbitzuen Legearen helburu argi eta erabakigarria: Udalaren eskumena diren gizarte-zerbitzuak taldeka egin ahal izatea (Gizarte Zerbitzuen Legeko 28.2 artikulua eta 29.4 artikulua).*

*c) Helburu hori, hain justu, inon baino agerikoagoa da Arabako Lurralde Historikoan; izan ere, lurralde horretan, 20.000 biztanle baino gutxiago bizi dira Gasteizen ez beste udalerririk guztietan, eta 20.000 biztanle baino gutxiago bizi dira XXX udalerrian ere.*

*d) Gizarte Zerbitzuen Legeko 36.5 artikuluan ere aipatzen da zerbitzuak modu konpartituan emateko aukera; izan ere, hauxe ezartzen du artikuluko horrek: Gizarte Zerbitzuen Mapa aplikatzeko orduan, foru eta udal administrazioek ezarritako muga geografikoak hartuko dira kontuan. Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa onartu den honetan, oraindik zehazteko dago nola emango diren gizarte-zerbitzuak, baldin eta udal mugetatik harago doan lurralde batean eman behar badira.*

*e) Gaurdaino, Gobernu Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 akordioaren bitartez (organo berak luzatua abenduaren 21 eko 765/2018 akordioaz), Arabako Foru Aldundia ari da udal zerbitzuen zati handi bat ematen, nahiz eta, ezarritako aurreikuspenen arabera, zerbitzu horien hornikuntza Udalari egokitu.*

*f) Gizarte Zerbitzuen Legeak berariaz aitortzen du administrazioek batera lan egiteko eta koordinatzeko betekizuna; izan ere, hala dagokio gizarte-zerbitzuen sistema integratu bati, eta halakoa da diseinatu den sistema.*

*g) Era berean, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeko 31.2.a) artikulua ezartzen duenaren arabera, Aldundiaren helburuetako bat da "Udalaren eskumena diren zerbitzuak lurralde osoan egoki eta osorik ematen direla ziurtatzea".*

*h) XXX(e)ko Udalak XXX datan adostu zuen ados agertuko zela Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluko abenduaren 26ko 904/2016 akordioarekin, zeinaren arabera, gizarte-zerbitzuak emango baitziren 2016ko abenduaren 26tik aurrera ere, behin-behinean, 24 hilabetez, ordura arte Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek egin bezala. Akordioaren arabera, gainera, 24 hilabetez epe horretan, Mapa osatzeko helburuarekin sortu zen Erakunde Arteko Mahaiak hainbat baliabide proposatuko zituen, hots, behar adina baliabide tekniko, ekonomiko eta juridiko, hartara, gizarte-zerbitzu guztiak eman zitezten, nor bere eskumenen barruan, eta hori guztia apurka ezarriko zen epe horretan. Baita ere, ados agertzen da organo beraren abenduaren 21 eko 765/2018 akordioarekin, zeinak 2020ko ekainaren 26ra arte luzatu zuen aipatutako 904/2016 akordioa, abenduaren 26koa.*



i) Prozesu hori oraindik ez da amaitu, salbu eta etxex etxeko laguntzaren alorrean.

Kontuan harturik Arabako Foru Aldundiak 222/2020 Akordioa sinatu duela, eta horren bitartez Lurralde Historikoko Udalerriei proposatu diela 2020ko abenduaren 31 arte luzatzea abenduaren 26ko 904/2016 Akordioa, eta kontuan harturik aurreko akordio horrek ezartzen zuela gizarte-zerbitzuak behin-behinean ematen jarraituko zela, ordura arte Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek egin bezala, bere garaian ezarritako terminoetan.

Kontuan harturik premiazkoztat jotzen dela Udalaren eskumena diren zerbitzuak ematen jarraitzea eta elkarlanean jarraitzea, orobat, Gizarte Zerbitzuen Legeak, Sailaren Dekretuak eta Plan Estrategikoak ezartzen dutena betetzeko, betiere, gaur egun indarrean den Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin bat datorren ikuspegi tekniko, juridiko eta finantzario buruaski batetik.

Eta abiapuntu gisa harturik Akordioaren bigarren puntuak ezartzen duena, hots, akordioa indarrean sartzeko udalerriek onartu egin behar dutela hori, ados agertu behar dutela horrekin, eta agiri baten bitartez baieztatu behar diotela hori Arabako Foru Aldundiari.

Hori guztia kontuan harturik, Udalbatzak ERABAKI DU

Lehena: Udala ados dagoela Foru Gobernu Kontseiluaren 222/2020 Akordioarekin, zeinaren arabera onartzen baita 2020ko abenduaren 31 arte luzatzea abenduaren 26ko 904/2016 Akordioa. Aurreko akordio horrek ezartzen zuen gizarte-zerbitzuak behin-behinean ematen jarraituko zela, ordura arte Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek egin bezala, bere garaian ezarritako terminoetan.

Bigarrena: Udalari ahalmena ematea, akordio honetan ezartzen direnak garatzeko eta kudeatzeko.

Hirugarrena: Akordio honen berri ematea Arabako Foru Aldundiari, aipatutako testuko bigarren puntuan ezarritakoa betetzeko."

Ongizate Batzordeak proposatzen duen ebazpena, berriz, ondorengoa da:

**Lehena.-** Onartzea, Udal Gizarte zerbitzuak ematen jarraitzeko hitzarmenaren luzapena egitea.

**Bigarrena.-** Sinatzea, Arabako Foru Aldundiak onartutako akordioa Udal Gizarte zerbitzuak ematen jarraitzeko.

**Hirugarrena.-** Alkate andrea eskuordetzea aipatutako zerbitzuak ematen jarraitzeko hitzarmena sinatzeko.

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Ongizate Batzordeak adostutako oinarriak eta proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

## **5. ONARTZEA TALDE SOZIOKULTURALAK DIRUZ LAGUNTZEKO 2020 EKITALDIARI DAGOKION DEIALDIAREN OINARRIAK.**

Alkate-Lehendakariak hitza hartu eta aurkezten du Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako oinarriak, talde soziokulturalentzat diru-laguntzen deialdia egiteko 2020 urtean.

**"KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO DIRULAGUNTZA. 2019KO DEIALDIA.**

### **OINARRIAK**

#### **1.- Deialdiaren xedea.**

Aurrekontuaren muga barruan, gastuen finantzaketan laguntzea Aramaioko udalerrian 2020an antolatzen diren kultura, euskararen sustapen eta kirol eta/edo gizarte arloetako jardueri eta, orobat, helburuak zehaztea herritarrei bermatzeko, baldintza berberetan eskuratu ahal izatea prestazio hauek, udal eskumenekoan osagarri edo ordezkotako diren zerbitzuak eta jarduerak egiteko.

Programa honen xede diren laguntzetara bideratutako diru kopurua 17.080,16 eurokoa da.

#### **2.- Onuradunak.**

Diru-laguntza deialdi honetara elkarrekin, kultura eta/edo gizarte taldeak eta entitate publiko zein pribatuak aurkez daitezke, baldin eta irabazteko asmorik ez badute eta aurreko puntuan zehaztutako ekintzen artekoen baten bat bada; Aramaion eduki beharko dute egoitza, eta gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Legez eraturik eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Entitateen Erregistroan inskribaturik egotea.
- Beren programak eta aurrekontuak Administrazio Publikoaren publikoaren ikuskaritzapean jartzea.

Herritarrek ere aurkeztu ahal izango dira, banaka, baldin eta maiz edo noizbehinka biltzen badira adieraziko motako jarduerak egiteko eta aurrekoari kalterik egiten ez badiot.



### **3.- Diruz lagundu daitezkeen programak eta jarduerak.**

Diru-laguntza hauek kultura, aisia, gizarte ekintza, hezkuntza, euskara eta kirol arloetan antolatzen diren jardueretarako emango dira.

Ez dira inolaz ere onartuko honako ekintzarik:

- Erlijio edo sexu arrazoiengatik baztertzen duenik, ezta ere edonolako kolektiborik baztertzen duenik.
- Ikuskizun, jai edo bestelako ekintzetan animaliek tratu txarrak jasaten duenik.
- Ingurugiroa kaltetzen dutenik
- Euskararen erabilera lehenesten ez dutenik

Ezinbestekoa izango da barne eta kanpo komunikazioak euskaraz izatea.

### **4.- Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak.**

Laguntzak jaso nahi dituzten elkarteek eskaera aurkeztu beharko dute, honako agiri hauekin batera:

- Eskaera-orri ofiziala( Eranskina)
- Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia, elkartearen ordezkari den aldetik, eta elkartearen IFZ.
- Erakundearen estatutuen fotokopia eta legez eraturta eta erregistraturta dagoela egiaztatzen duen agiria (eskaera egiten den lehenengo aldia edo aldaketaren bat egiten denean soilik aurkeztu beharrekoa).
- Aurreikusitako ekitaldien programa, urtero egiten den aldirako (lortu nahi diren helburuak, jarduera bakoitzerako aurreikusitako lekua, data eta iraupena, nori zuzenduta dagoen eta jardueren onuradunen kopurua). ( II. Eranskina)
- Diru-laguntzaren bidez garatzekoak diren jardueren diru sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua.
- Diru-laguntza jaso ahal izango duen programa garatzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatutako diru-laguntzen zinpeko aitortpena edo, badaude, emandako diru-laguntzena eta ematear daudenena.
- Zerga zorrik ez duela eta Gizarte Segurantzaren ordainketetan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria. (III.eranskina)

Azkeneko bi agiri horiek, Diru-laguntzei buruzko 38/03 Lege Orokorraren 13. artikularen 2. eta 3. paragrafoetan jasotzen diren onuradun izaera lortzeko debekuen eraginpean ez egotearen aitortpenak ordezkatu ahal izango ditu. Aitortpen hori administrazioko agintariaren aurrean aurkeztuko da. (II. Eranskina)

Diru-laguntza hauen eskaerak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzea.

Ezin izango dituzte diru-laguntza hauek eskuratu Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan aipatzen dituen arau hausteengatik zigorra izan dutenek.

Udalak interesdunei eskatuko die akatsak zuzentzeko hamar eguneko epealdian (ezin izango da luzatu) eta ohartaraziko die, eskatutakoa egin ezean, eskaeran atzera egintzat hartuko dela, beste izapidetik gabe.

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, erakunde eskatzaileei ohartaraziko zaie aurkeztutako agirietan emandako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko diru-laguntzak emateko prozeduran soilik erabiliko direla.

### **5.- Eskaerak aurkezteko epealdia.**

Eskaerak aurkezteko hoguei egun naturaleko epealdia egongo da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Izaera puntuala edo apartekoa duten jarduera edo programetarako eskaerak, hasi baino hilabete lehenago aurkeztu behar dira. Nolanahi ere, eskaerak urteko azaroaren 18rako aurkeztu behar dira.

Salbuespen gisa, xedatutako epetik kanpo aurkeztutako eskaerei diru-laguntzak eman ahal izango zaizkie, baldin eta horretarako dirurik badago, eta Aramaioko Udalaren helburu publikoetarako interesekoak badira.

Diru-laguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du oinarri hauetan eta kasuan kasuko oinarri espezifikoean ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

### **6.- Balorazio irizpideak.**

Aramaioko Udalak emango dituen diru-laguntzak ekitaldiak aurrera eramateko elkarteek izaten duten defizitaren zati bat estaltzeko izango dira, udalaren ustez diru-laguntza jaso ezin duten gastuen aurrekontua kendu ondoren.

Diru-laguntzak ematea borondatezkoa izango da; hortaz, ez da inolako betebeharririk egongo deialdi honetako oinarriak betetzen dituzten eskaera guztiei diru-laguntza emateko.

6.1.- Eskaeran adierazitako datuak baloratuko dira laguntzen zenbatekoa finkatzeko.

6.2.- Diru-laguntzak emateko eta haien zenbatekoak finkatzeko irizpideak, IV. eranskinean ezarritakoaren arabera izango dira.



✘ Ondorengo hauek ez dira gastu konputagarriak puntuazio baremoaren arabera laguntza kalkulatzeko, ez eta justifikatzeko modukoak ere, baina bai jardueraren gastu osoa konputatzeko:

- Janariak oro har.

#### **7.- Eskaerak aztertzea eta ebaztea.**

Eskaerak aurkezteko epealdia amaitutakoan aztertuko dira eta bakoitzari diru-laguntza eman edo ez ebatziko da.

7.1.- Espedientea bideratzeko eta ebazteko eskumena daukan organoa.

Espedientea bideratzeko organo eskuduna kultura arloko zinegotzia izango da.

Balorazio batzordea kultura batzorde informatzaileak osatuko du.

Ebazteko eskumena Alkateak dauka.

7.2.- Aztertzea eta ebaztea.

Bideratzaileak jarduera hauek egin behar ditu:

- Ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren txostenak eskatu.
- Eskaerak ebaluatu oinarri hauetan ezarritako irizpideen, helburuen edo lehentasunen arabera.
- Espedientea ikusita, bideratzaileak ebazpen proposamena aurkeztuko du, behar bezala arrazoituta.
- Ebazpen proposamenak puntu hauek eduki beharko ditu, gutxienez: diruz lagundu daitekeen proiektua, zenbatekoa, lortutako puntuak eta justifikatzeko epea.
- Ebazpenean ondokoak azaldu behar dira gutxienez: diru-laguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda (bakarra izan daiteke) eta gainerako eskaerak ezetsi direla.
- Halaber, ebazpenean bertan jakinaraziko zaizkie interesdunei ebazpenaren aurka jar ditzaketen errekurtsioak, zer organo judiziala aurkeztu behar dizkioten, eta hori egiteko epea; dena dela, interesdunek egoki irizten dioten beste edozein eskubide ere gauza dezakete.

Eskaerak ebazteko epea sei hilabetekoa izango da, aurkezteko epealdia bukatzen denetik. Epealdi horretan ebazpenik ematen eta jakinarazten ez bada, eskaerak ezetsizat jo beharko dira.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, beraz, Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 9.c) artikulua xedatutakoaren ildotik, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegi nagusietan. Horretarako bi hilabete izango dira ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, hilabeteko epealdian errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak finkatutako testua).

#### **8.- Diru-laguntzaren zenbatekoa.**

Diru-laguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste diru-laguntza batzuekin batera, ezingo da inoiz jardueraren kostua baino handiagoa izan.

Jasotako diru-laguntza berriro aztertu ahal izango da, diru-laguntza osagarriak edo beste erakunde batzuen diru-laguntzak jaso direla jakindakoan, bai eta bestelako diru sarrerarik izan bada ere.

#### **9.- Zuritza eta ordaintza.**

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da:

- Ehuneko 75, ematea ebazten den unean.
- Gainerakoa, diruz lagundutako jarduerak eta programak egin direla justifikatzen denean; horretarako, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

1) Diruz lagundutako proiektu edo programa bakoitzaren **memoria-likidazioa eta justifikazio kontu erraztua**; datu hauek adierazi behar dira:

- Egindako jarduerak.
- Aldiak: egunak eta orduak.
- Parte-hartzaileak.
- Helburuak eta balorazioa

- Jarduerak sortutako sarrera eta eragindako gastu guztien balantzea. Kontzeptu guztiek sortutako sarrerak hartu behar dira kontuan: bazkideen kuotak, laguntza ekonomiko publiko zein pribatuak, eta jasotako gainerako diru kopuru guztiak (materialen salmentagatik jasoak, zozketek sortuak...).



2) Diruz lagundutako gastuen kopuruagatik egiaztagiri (fakturak) originalak edo fotokopia konpultsatuak. Fakturak edo egiaztagiriak onartuak izateko, ondorengo jaso beharko dute gutxienez: Hornitzailearen identifikazio datuak, helbidea eta CIF/NIFa; eroslearen identifikazio datuak (dirulaguntza eskaera aurkezten duen elkarte edo pertsonaren berdina izan behar da), helbidea eta CIF/NIFa; kontzeptua, data, zenbatekoa; BEZa eta faktura zenbakia.

Udalak egoki irizten dituen dokumentu gehigarriak eskatu ahal izango dizkie onuradunei.

Gastuen frogagiriak inprimakiko kontzeptuen arabera antolatu eta multzokatu behar dira.

3) **Zinpeko aitortpena:** xede bererako edozein administrazio edo erakunde edo entitate publikorengandik dirulaguntzak edo laguntzak jaso(k)o dituen edo ez. Beste dirulaguntzaren bat lortuz gero, zenbatekoa izan den zehaztu behar da eta zer administraziok eman duen argitu, eta datuok benetakoak direla frogatzen duen agiria aurkeztu behar da.

4) Diruz lagundutako jarduerari buruzko **programa, kartel eta publizitateko elementuen ale bana.**

Aurkeztutako ordainagiriaren kopurua diruz lagundutako aurrekontua baino txikiagoa bada, edo diruz lagundutako jardueraren bat burutu ez bada, onuradunak horren berri emango dio udalari, gainerako zenbatekoa udalaren diruzaintzan sartzeko edo, bestela, diru-laguntza murrizteko.

Justifikazioa abenduaren 30a baino lehen aurkeztu behar da, deialdia zein urtergi dagokion, urte hartan.

**10.- Arauak ez betetzea eta ondorioz diru-laguntza itzuli behar izatea.**

Onuradunak diru-laguntza jasotzeko jarri diren baldintzak betetzen ez baditu eta, era berean, aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltasutzen edo gordetzen baditu, kendu egingo da diru-laguntza, eta kasu horretan itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.”

Besterik gabe, Alkate-lehendakariak aurkezten du, Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako diktamena:

“**Lehena.-** 2020an talde soziokulturalei diru laguntzak banatzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

**Bigarrena.-** 2020ko talde soziokulturalen artean banatzeko diru-laguntzen gastua onartzea, 17.080,16 eurokoa.

**Hirugarrena.-** Dagokionean, deialdia zabaltzea.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako oinarriak eta proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

## **6. ONARTZEA AUZOETAKO JAIK DIRUZ LAGUNTZEKO 2020 EKITALDIARI DAGOKION DEIALDIAREN OINARRIAK.**

Alkate-Lehendakariak aurkezten du Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako oinarriak, Auzoetako jaiak diruz laguntzeko deialdia egiteko 2020 urtean:

### **“AUZOETAKO JAIK. 2020KO DEIALDIA.**

#### **OINARRIAK.**

##### **LEHENENGOA.-** Deialdiaren xedea:

Aurrekontuaren mugaren barruan, Aramaioko udalerraren eremuan 2020ko auzoetako jaiak edo erromeriak antolatzeko diru-laguntzak ematea.

Programa honen xede diren laguntzetara bideratutako diru kopurua 13.500 eurokoa da.

##### **BIGARRENA.-** Onuradunak:

Aramaioko auzo elkarteak (auzo alkateen bidez) eta Oletako Batzar Administrazioa.

##### **HIRUGARRENA.-** Baldintzak:

Ez dira inolaz ere onartuko honako ekintzarik:

- Erljio edo sexu arrazoiengatik baztertzeko duenik, ezta ere edonolako kolektiborik baztertzeko duenik.
- Ikuskizun, jai edo bestelako ekintzetan animaliek tratatu txarrak jasaten duenik.
- Ingurugiroa kaltetzen dutenik
- Euskararen erabilera lehenesten ez dutenik

##### **LAUGARRENA.-** Dirulaguntzen izaera:

Diru-laguntzak borondatezko izaera izango dute, beraz, Udalak ez du aurkezten diren eskakizun guztiei dirulaguntza emateko obligaziorik, nahiz eta deialdi honen oinarriak bete.



**BOSTGARRENA.- Dirulaguntzen zenbatekoa:**

Diru-laguntzak programaren kostuaren eta kostu hori ordaintzeko dauden baliabideen araberakoa izango da, eta garrantzitsua da kontuan izatea sustatzaileak berak berezko baliabideak sor ditzakeela Herri Administrazioen bitartez. Hala ere, dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo du inolaz ere gastuaren %80koa baino gehiago izan.

Dirulaguntzak, aurkeztutako eskaeren balorazioaren menpe egongo dira. Balorazio hori, Kultura Batzordeak egingo du Kultura teknikariaren laguntzarekin. Azken honek, auzoek aurkeztutako dirulaguntzen txostena eta aurreko urteetan emandako dirulaguntzen erlazioa egingo du.

Batzordeak, eskaeren eta txostenaren arabera, auzo bakoitzaren eskaeraren balorazioa egingo du

Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak (bakarrik udalarena zein beste entitate batzuen diru-laguntza edo laguntzekin batera) ezin du inolaz ere elkarte edo entitate onuradunak egingo duen jardueraren kostua gainditu.

Behin eskaera bakoitzaren balorazioa eginda, Kultura Batzordeak proposamena Alkateari luzatuko dio.

**SEIGARRENA.- Dirulaguntzen ordainketa:**

Auzo bakoitzari dagokion zenbatekoa jakin eta gero, ordainketa banaketa honako hau izango da:

- Egitarauaren hasieran dirulaguntzaren ehuneko 75.
- Ehuneko 25, jardueraren txostena eta sortutako gastuen fakturak aurkezterakoan eta ontzat ematerakoan.

Hasieran emandako ehuneko 75a osorik ez bada justifikatzen, diru hori itzuli beharko dio udaletxera eta ez du gainerako ehuneko 25a jasoko.

Salbuespen moduan eta arrazoi justifikatuagatik dirulaguntzaren totala ordainketa bakarrean egiteko aukera dago, beti ere ordainagiriak eta justifikazio txostena entregatuz eta Kultura Batzordeak horrela proposatzen badu.

**ZAZPIGARRENA.- Eskaerak:**

Diru-laguntza hauek lortzeko interesa duten Elkarrekin edo norbanakoek honako hau aurkeztu beharko dute,

- Eskaera-orri ofiziala eta inprimakia. Jai bakoitzeko inprimakia bat bete beharko da.
- Harremanetarako pertsonaren helbide elektronikoa
- Jaietako ekintzen programa
- Gastuak eta diru sarrerak (Arabako Foru Aldundia, Vital Kutxa, edo bestelako entitateetik lortutakoak, kuotak,...)
- Elkarrekin kasuetan NIFaren fotokopia eta norbanakoen kasuan NANaren fotokopia.
- Gizarte Segurantzaren eta Ogasuneko Diruzaintza Orokorrekin dituen betebeharrak eguneratuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria; horren orde zuzeneko aitortpen bat aurkeztu ahal izango da, betebeharrak fiskal eta/edo zerga-betebeharrak beteta dituela dioena. Komenigarri irizten bada, bi ziurtagiri horiek eskatu ahal izango dira.

Aurkeztutako eskabideek adierazi diren baldintzak betetzen ez badituzte, interesatuei ohartaraziko zaie akatsak hamar egunetako epean zuzendu ditzaten, eta honela egiten ez badute, eskaera artxibatu egingo da, eta dirulaguntza ukatuzat joko da.

**ZORTZIGARRENA.- Epea:**

Aurkezteko bi epe desberdin egongo dira eta eskatzaile bakoitzak erabakiko du noiz aurkeztu:

- Ekainak 1

edo

- Irailak 3

**BEDERATZIGARRENA.- Justifikazioa eta ordainketa:**

Dirulaguntza bi ordainketetan jasoko da:

- Ehuneko 75 eskaera ontzat hartzen denean.
- Gainerakoa, aurreikusitako ekintzak egin direla justifikatzen denean, honako hau aurkeztuz:
  - Ekintzen memoria-likidazioa (eredua udaletxean eska daiteke).
  - Likidazio ekonomikoa: zehaztu gastuak eta sarrerak (3.Erasnkina)
  - Diruz lagundutako gastuen kopuruagatik egiaztagiria (fakturak) originalak edo fotokopia konpultsatuta. Fakturak edo egiaztagiria onartuak izateko, ondorengo jaso beharko dute gutxienez: Hornitzailearen identifikazio datuak, helbidea eta CIF/NIFa; eroslearen identifikazio datuak (dirulaguntza eskaera aurkezten duen elkarte edo pertsonaren berdina izan behar da), helbidea eta CIF/NIFa; kontzeptua, data, zenbatekoa; BEZa barne edo kanpo eta faktura zenbakia.



Esp. kodea.: 2020APAK0003

Gaia: 2020/06/16 UDAL PLENOAREN EZOHICO BILKURAREN AKTA

- Esku orrien aleak. Ale horietan Aramaioko Udalaren laguntzaren berri eman beharko da.

Justifikazioa, **jaiak bukatu eta hilabeteko epea** egongo da udal bulegoetan entregatzeko.

Ebazpena eta jakinarazpena egiteko epea sei hilabetekoa izan da, beti ere, abenduaren 30a baino lehen.

**HAMAIKAGARRENA.- Ulerzteko modua:**

Oinarri hauek nola ulertu behar diren argi ez badago, Aramaioko Udaleko Kultur Batzordeak ebatziko du zalantza.

**HAMABIGARRENA.- Organo eskuduna:**

Kultura Batzordea izango da espedientearen instrukzioa egingo duen organoa. Alkatea izango da dirulaguntzen ebazpena egingo duen organoa.”

Besterik gabe, Alkate-lehendakariak aurkezten du, Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako diktamena:

“**Lehena.-** Onartzea, 2020an auzoetako jaiak diruz laguntzeko deialdiaren oinarriak.

**Bigarrena.-** 2020ko auzoetako jaiak antolatzeko diru-laguntzen gastua onartzea, 13.500,00 eurokoa.

**Hirugarrena.-** Dagokionean, deialdia zabaltzea.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, Kultura eta Kirol Batzordeak adostutako oinarriak eta proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.